

Erf.: Ordenantza fiskalen kontrako alegazioak
Epediente zk.: 16/37

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

2017. urterako Ordenantza fiskalen hasikerako onarpenaren kontra egondako alegazioak.

Nork eskatu dauen txostena

Ekonomia eta ogasun sailak.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2016eko urriaren 26an Udal Osoko Bilkureak 2017. urterako Ordenantza fiskalak hasikeraz onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Entzunaldi epean, Javier Gómez Ibarluzea jaunak eta Blanca Goienetxea Fernandez andreak Ordenantza fiskalen kontrako alegazioak aurkeztu ebezan

b) Oinarri juridikoak

Lehenengoa: Aipatutako alegazioetan honakoa adierazoten da:

Con relación a la ordenanza que aplica un recargo a las viviendas vacías quería exponer ante todo que me parece muy bueno gravar las viviendas vacías para incentivar los alquileres, pero no el modo con el que se está considerando que una vivienda está vacía.

Yo tengo una vivienda en Bermeo que la utilizo como segunda vivienda porque vivo en Bilbao y puedo demostrar que **mi vivienda no está vacía**, aunque no haya nadie empadronado, con los recibos de consumo de suministro de luz y de agua.

Mientras que las viviendas **sin consumo de luz y de agua** son **viviendas vacías** aunque tengan habitantes empadronados.

Etxe hutsen errekarquen inguruan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 4/2016 Foru Arauak honakoa dino:

“10. artikulua. Hautazko hobariak eta errekarquak.

(...) 8. Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, udalek 100eko 50erainoko errekarqua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezinak hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinaren Zergaren sortzapen datan.

Errekargu honen aplikazioaren ondorioetarako, etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistral bakarri osatzen badute.

Aurrekoa gora behera, udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den errekarqua”.

Beraz, Foru Arauaren arabera, ohiko egoitza ez danean ezarri leike gainkarqua, hau da, modu herrikoi baten etxe hutsak esaten bada be, ohiko egoitza ez diren etxebizitzaz ari gara. Eta Foru Arau berak dino udal erroldak emongo dauala egoeraren egiaztapena.

Ondorioz, argi dago bigarren etxebizitza moduan erabiltzen dana ez dala ohiko egoitza.

Bigarrena: Horren inguruan, gogora ekarri behar dogu Toki Erregimenaren Oinarri Legea onartzen dauan 7/1985 Legeak bere 16. artikuluan dinoena: “1. El Padrón municipal es el registro administrativo donde constan los vecinos de un municipio. Sus datos constituyen prueba de residencia en el municipio y del domicilio habitual en el mismo. Las certificaciones que de dichos datos se expidan tendrán carácter de documento público y fehaciente para todos los efectos administrativo”.

Eta aitaturako legeko 15. artikulua dinoena: "Toda persona que viva en España está obligada a inscribirse en el Padrón del municipio en el que resida habitualmente. Quien viva en varios municipios deberá inscribirse únicamente en el que habita durante más tiempo al año".

Beraz, arau horreen arabera be, ohiko egoitza izango da nor edo nor erroldatuta daukan etxebizitza eta, erroldatzea, artikulua horreek agintzen dabenaren arabera egin behar da, hau da: benetako bizilekua dan egoitzan eta, bizileku bat baino gehiago egon ezker, urteko egun gehien emoten diran egoitzan.

Hori guztia dala eta, aitaturako alegazinoa ez onartzea eta Ordenantza fiskala bere horretan mantentzea proposatzen da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko azaroaren 23an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria